

# Irungo EAJ-PNV

*Zure hirian zer gertatzen den ezagutzuz*

Irion



EAJ-PNV Irungo Udal Taldearen buletina 2013-12-27

## Berri nabarmenak



### Badiako Bidearen proiektua eta Arbesen kirol instalazioak nabarmendu ditu EAJ-PNVk aurrekontuetarako zuzenketetan

Xabier Iridoy Irungo EAJ-PNV Udal Taldeko bozeramaileak joan den abenduaren 13an eskainitako prentsaurrekoan bere taldeak 2014ko Udal Aurrekontu Proiektuari aurkeztu zizkion zuzenketak ezagutzera eman zituen. Jose Corchon zinegotziak lagundurik, Iridoyk adierazi zuen «gobernu sozialistak aurkeztutako zirriborroa aztertu ondoren, hobetzeko aukera zegoela ikusi dugu, eta horren harira, EAJ-PNVk zuzenketak proposatu ditu hiritarrek helarazi dizkiguten behar eta eskakizunetan oinarrituta».

Bestalde, talde jeltzaleak oso kontuan du Irun langabezia tasarik handiena duen Gipuzkoako udalerrria dela, horregatik, Irungo EAJ-PNVk aurkeztutako proposamenek, alde batetik, hiritarren ongizatea hobetzea bilatzen zuten, eta, bestetik, tokiko ekonomia sustatzea bertako enpresek egin ahal izango zituzten kopuru txikiagoko obrek.

Irungo EAJ-PNVk hiri-proiektu bat du, non auzoek garrantzia berezia duten, eta berari esker irundarren beharrei erantzuna ematea bilatzen den. Hori dela eta, proiektuarekin eta eskaerekin koherentzian, ondorengo zuzenketak planteatu genituen:

Lehenik eta behin, 500.000 euroko partida sartzea proposatu zuen Txingudiko ingurune naturaletik, Hendaia eta Hondarribia bizikleta ibilbidez lotzeko planerako. «Ez dugu alkatea ulertzen; gurea izan den ekimen baten gurdira igo da. Eusko Jaurlaritzak bere egin duen ekimena da. Santano hainbeste identifikatu da berekin, non berea dela uste baitu; eta hainbeste gustatu zaio, ziur gaudela 500.000 euroko zuzenketa hau onartuko duela» adierazi zuen Iridoyk.

Gainera, Batzar Nagusietako talde jeltzaleak 250.000 euro proposatu ditu proiektu horretarako, eta uste dugu Irungo Udaletik ere bultzatu egin behar dugula. Hiriarentzat oso proiektu interesgarria da, Irungo eta eskualdeko mugikortasunerako aurrera-pausoa ekarriko duena.

Bestalde, auzo desberdinetan bizi kalitatea hobetzeko, 520.000 euro proposatu genituen Arbesen kirol instalazioen eremu bat eraikitzeko; 455.000 euro Behobian Gaztelu Zahar ibilbideko errepidea hobetzeko; eta 200.000 euro Artian, Harrobieta kalearen eta Iparragirre kaletik Dario de Regoyos kalera doan luzapenaren artean dagoen udal lursailean 30 kotxerentzat aparkalekua eraikitzeko. Duela bi urte, Belasko Enearako egin genuen planteamenduarekin lotuta, San Antonio de Paduako parkearen zabalkuntza proiektuan aurreikusten den aparkaleku eremua eraikitzeko 145.000 euro proposatu genituen; eta Meakan, Irugurutzetako Labeetako Interpretazio Zentrora iristeko bidean esku-hartzeko 150.000 euro.

Halaber, 163.000 euro proposatu genituen Luis Marianoko Gizarte Zentroan hobekuntzak egiteko, gizarte zentrotik merkataritza gunearen goiko aldean dagoen terrazara sarbidea eraikiz eta bere erabilera ahalbidetuz –soinketarako aparatuak, bankuak, etab. Jarriko lirateke terrazaren aldamenean dagoen gunean–; 100.000 euro gure hirian oraindik dauden 30 puntu beltzak kentzeko; 20.000 euro Ekobaratzen edo Baratzta Sozialen proiekturako; eta 10.000 euro euskarazko Windows eta Microsoft Office-n lizentziak erosteko.

Laburbilduz, gure hiriko mugikortasuna, irundarren ongizate eta bizi kalitatea, bertako

kaleetako segurtasuna, udaletxeko langileen artean euskararen erabilera... hobetuko duten proposamenak dira. Eta, zalantzarik gabe, tokiko ekonomia sustatzen lagunduko duten proiektuak dira. «Udal gobernuarekin negoziatu ondoren, gure proposamenak 2014ko aurrekontuan aintzat hartzea espero dugu» amaitu zuen Xabier Iridoyk.



## EAJ-PNVk Irunen aldeko apustua egiten du euskal erakunde guztietan

«EAJ-PNVk, euskal erakunde desberdinetan, argi utzi du Irunen eta irundarren aldeko apustua egiten duela» adierazi zuen Xabier Iridoy udal bozeramaileak joan den abenduaren 4an Irungo Batzokian eskainitako prentsurrekoan. Markel Olano Gipuzkoako Batzar Nagusietako EAJ-PNVko bozeramaileaz eta Jose Corchon zinegotzi eta batzarkide jeltzaleaz lagundurik, Eusko Alderdi Jeltzaleak Eusko Jaurlaritzan, Batzar Nagusietan eta Irungo Udalean hartutako konpromisoa plazaratu zuen Iridoyk. «Irundarren alde lan egiten dugu, beren ongizatearen alde, eta ez hiritarrengandik hurbilen dagoen erakundetik bakarrik, Batzar Nagusietatik eta Eusko Jaurlaritzatik ere».

Berriki jakin dugu Eusko Jaurlaritzak 3.250.000 euro bideratuko dituela Irunera, eta hori EAJ-PNVk gure hiriarekiko hartu duen konpromisoaren adibide da. Aurrekontu-partidak irundarrentzat erabat garrantzitsuak diren hainbat proiektu gauzatzeko ahalbidetuko du: Santiago zubiaren eta Behobiaren arteko lotura bidegorriaren bitartez, San Juan plazako liburutegia, Urdanibia plazako eraberritzea, Leka Enea ikastetxean hobekuntzak, Oiassoko termak babestea edo Luis Marianoren mendeurrenaren programa. «Gure hirirako proiektu garrantzitsuak dira, horregatik, zalantzarik gabe, Irunerako eta irundarrentzat oso albiste ona izan da» baietsi zuen Xabier Iridoyk.

Eusko Jaurlaritzatik etorriko den aurrekontu-partidaz gain, talde jeltzaleak Irunekiko konpromisoa ere azaldu du Batzar Nagusietan. Markel Olanok azaldutakoaren arabera, EAJ-PNVk Irunekin lotutako bi proposamen aurkeztu ditu: lehenengoa, Txingudi Badiako Bidean aurrerapausoak emateko, 250.000 euro bideratzea eskatu ditu; eta, bigarrena, Gipuzkoako adineko pertsonen egoitzetan –n gure eskualdeko egoitzak sartzen diren– plazak kontzertatzeko 1.000.000 euroko partida.

Olanoren hitzetan, Irunerako egoitza berria eskatzen ari dira legealdi hasieratik, EAJ-PNVk hitzartuta utzi zuen aurreko agintaldian, baina Bilduren gobernuak ez du garatu nahi izan; plaza gehiago hitzartzeko asmoa adierazi zuen GFak. Gizarte Politikako 2014ko aurrekontuan, ordea, ez dago jasota mendekoak diren adineko pertsonentzat plaza berriak hitzartzea. Hala erantzun dute modu ofizialen eta testualki. Ez egoitza berriak, ezta plaza berriak hitzartzeko asmorik ere. «Testuinguru horretan, aurrekontuetan 1.000.000 euroko partida bat jaso dugu zuzenketa bezala, adinekoentzat, eta plaza psikogeriatrikoentzat, hitzarmenak sustatzeko, plaza gehiago hitzartzeko, beharrei erantzuteko. Mahai gainean jartzen dugun lehentasunezko arloa da hori» azaldu zuen Markel Olanok.

Amaitzeko, azkeneko urteetan bezala, 2014ko udal aurrekontuetarako irundarren eta auzo desberdinetako bizi kalitatea hobetuko dituzten proposamenetan lanean ari direla aurreratu zuen Xabier Iridoy Irungo EAJ-PNVko udal bozeramaileak. «EAJ-PNVk hiri-proiektu bat du, eta gure proposamenak proiektu hori osatzearen ildotik joango dira. Horregatik, gobernu sozialistak gure ekarpenak kontuan izatea espero dugu».



## ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

Krisiak astindutako urte gogorrari amaiera ematear gaude. Nahigabea eta tristezia eragin diguten albiste ugari jaso ditugu 2013 urtean zehar eta familia irundar askok egoera bidegabeak jasan dituzte testuinguru ilun honetan.

Ezkortasunetik urrun, hastear dugun urte berriak zoriontasuna eta oparoaldia ekar dezala gure artera.

Irungo EAJ-PNV Udalen Taldearen izenean, ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

# Buletin honetan ere...

## Irundarren ongizatea hobetzeko eta tokiko ekonomia sustatzeko lanean jarraitzeko konpromisoa du EAJ-PNVk

Urte amaiera hurbiltzen ari dela eta agintaldiaren erdia jada gainditu dugula aprobetxatuz, Irungo EAJ-PNV Udal Taldeak bi urte eta erdi hauen balorazioa egin nahi izan du.

2011ko udal hauteskundearen ostean, alderdi sozialistak minorian agintzen du Irungo Udalean. Indar politikoen banaketa berriak interesgarria zirudien oposizioko taldeentzat, eta, batez ere, proposamenak aurrera atera ahal izateko etengabeko babes bilaketa eskatzen zion Santanoren gobernuari. Hala ere, Udalbatzaz Udalbatza baietsi dugu Alkate jaunak behin eta berriro aipatzen dituen "adostasun zabalak" errealtatetik urrun daudela, eta gutxien exijitzen duen taldearen babesa bilatzera mugatu direla. PP-PSE isileko akordioa gertaera bat da gure udaletxean. Ikusi besterik ez dago azken hiru urteetako udal aurrekontuak nola onartu diren.

Agintaldi hasieratik, EAJ-PNVk oposizio serio, eraikitzaile eta arduratsua egin du. Udalaren kudeaketa ekonomikoari dagokionez, 2011n udalaren inbertsio-gaitasuna kolokan jartzen zuten funtzionamendu gastu oso altuak izatea kritikatu genuen. Udal gobernuak, 2011n, krisi urte batzuren ostean, ez zuen aurrezteko neurririk martxan jarri; ez kontratuen birnegoziazio bidez, ezta beste gastuen berrikuspenaren bidez ere. Zapaterok Madrilen erabakitako soldata publikoen jeitsierak bakarrik ahalbidetu zuen gure udaletxeko gastu korranteetan jeitsiera. 2012 urte hasiera arte itxoin behar izan zen gobernu sozialistak udaletxeko kudeaketa ekonomikoa zuzentzeko beharrezkoak ziren neurriak hartzeko. Momentuko premiak eta gure insistenziak Santanoren gobernuaren norabidea aldatzea ekarri zuten.

Bestalde, jakitun gara Gipuzkoako langabezia tasa handiena duen udalerrria izaten jarraitzen dugula, eta horren harira, tokiko ekonomia sustatzeko proposamenak egin ditugu eskualdeko enpresek egin zitzaizkaten kopuru txikiagoko obrak planteatuz. Bide batez, eta gure hiri-proiektua jarraituz, irundarren ongizatea eta auzoetako eguneroko bizitza hobetu duten esku-hartzeak izan dira. Pozik gaude Irungo hainbat auzoetarako proposamenak aurrera atera ditugulako; hala ere, beste ekimen asko bidean geratu dira udal gobernuak ez baitu horiek onartzeko ez interesik ezta borondaterik ere erakutsi.

Gizarte ikuspuntutik, eta egungo krisi ekonomikoak familia irundar asko egoera benetan zailtan jarri dituela jakitun izanik, egoera hau samurtzeko udaletxetik aurrera eraman diren ekimen guztiak babestu ditugu. Gainera, elikagaien banaketa zerbitzua indartzea proposatu dugu gure hiriko hainbat eta hainbat familiei zerbitzua ematen dien Berpiztu GKEarekin eta bere asteroko janari-banaketarekin.

Azkenik, EAJ-PNVtik irundarren alde lanean eta proposamenak egiten jarraituko dugu, beraien ongizatea eta auzoetako eguneroko bizimodua hobetzeko, eta tokiko ekonomia eta enplegua sustatzeko. Laburbilduz, duela urte eta erdiko hauteskundeetarako aurkeztu genuen hiri-proiektua eraikitzen jarraituko dugu.

## Xabier Iridoy: «Gobernu sozialistak ez du inolako interesik erakutsi EAJ-PNVren zuzenketak onartzeko»

«2011-2015 agintaldiko hirugarren aurrekontuen Udalbatza izan da gaurkoa; hirugarren aldia udal aurrekontuak PP-PSEren isileko akordioari esker onartzen direnak. Atzo goizean, komunikabideei esker gobernuak PPK aurkeztutako zuzenketa gehienei oniritzia eman ziela jakiten genuen bitartean, Ogasun ordezkaria gure proposamenak baztertzen ari zen. Akordioa itxia zegoen eta udal gobernuak ez du inolako interesik erakutsi gure proposamenak onartzeko» adierazi zuen Xabier Iridoyk.

Halaber, bozeramaile jeltzaleak gobernu sozialistaren jarrera deitoratu zuen. «Bere lehenetsuneko bazkideaz (PP) haratago, minorian dagoen gobernuak ez du oposizioko gainerako taldeen adostasuna bilatzen. Errazagoa da oso gutxi exijitzen duenarengana hurbiltzea, zorrotzagoa denari hurbiltzea baino, nahiz eta hori hiriaren kaltetan izan. Gobernuaren jarrera horrekin galtzen ateratzen diren bakarrak irundarrak dira» baieztatu zuen.

Zinegotzi abertzaleak bere interbentzioa jarraitu zuen esanez, hiritarrei begira oso polita geratzen dela minorian dagoen gobernuak akordiorik handiena bilatzen duela esatea, baina udaletxe honetan ez da hori gertatzen. «Duela egun batzuk, Paez jaunak adierazten zuen zabalik zeudela taldeek egin zitzaizkaten proposamen eta iruzkinak entzutera ahalik eta akordiorik handiena lortzeko zuten aurrekontuak lortzeko helburuarekin. EAJ-PNVtik baieztatu dezakegu hori gezurra dela eta gobernu sozialistak bere interes partidistak lehenesten dituela».

«Etxeko lanak ondo eginda eta planteamendu zuhur batekin etorri gara Udalbatza honetara. 2,2 milioi euro inguruko inbertsioa proposatu dugu, eta oraindik 1.616.394€-ko erreserba garrantzitsu bat geratzen da» azaldu zuen.

Jakitun gara Irun langabezia tasarik altuena duen Gipuzkoako udalerrria dela, eta horregatik gure taldeak aurkeztutako proposamenek hiritarren ongizatea hobetzea eta tokiko enpresek egin zitzaizkaten obrei eta proiektuei esker, bertako ekonomia sustatzea dute helburu.

Badirudi duela hilabete bat onartzen genuen eta gure hirirako hain beharrezkoa den "Ekonomia sustatzeko eta Familiak laguntzeko Inbertsio Plana" EAJ-PNVk Udalbatza honetan aurkezteak ez duela balio. Plan horrekin azaroan bilatzen zen helburuak, gaur ez du balio.

2015ean Gipuzkoako Foru Aldundiak izango duen diru-bilketaz hitz egin da, Fagorren itxieraren ondoriozko panorama ilunaz, etab. Baina, zergatik ez hitz egin azken egunotan entzun ditugun albiste positiboak? Edo zergatik ez kontuan izan Aldundiko zerbitzu teknikoen irizpidea Fagorren eraginez Gipuzkoako aurrekontua doitzea beharrezkoa ez dela diotenean?

«Laburbilduz, irundarren bizi kalitatea eta auzoetako eguneroko bizitza hobetzeko helburuarekin Osoko Bilkura honetara ekarri ditugun 10 proposamenetatik, udal gobernuak bi besterik ez dizkigu onartu. Irunerako proposatzen genituen 2 milioi eurotik gorako inbertsioetatik 250.000 euro bakarrik onartu dizkigute. PSE eta PPren babesarekin onartuko diren aurrekontu hauek hiriko ekonomia suspertzeko, irundarren ongizatea lortzeko eta auzoak hobetzeko helburutik urrun geratzen direla uste dugu. Horregatik guztiarengatik, EAJ-PNVk irizpenaren aurka bozkatuko du» amaitu zuen bozeramaile jeltzaleak.



## Euskararen Nazioarteko Eguna

Joan den abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatu zen eta horren harira, hainbat ekitaldi antolatu ziren Irunen. Goizean, Xabier Iridoy EAJ-PNV Udal Taldeko bozeramaileak Mendibil Merkataritza Parkean egin zen Mintzodromoan parte hartu zuen, eta arratsaldean Josune Gomez zinegotzia Kanean Bai planeko sinadura ekitaldian izan zen Udaletxeko Areto Nagusian. Ekimen hau Irungo Udaleko Euskara Arloak jarri zuen abian bertako haur eta gazteentzat antolatzen diren jarduera eta ekintzak euskalduntzeko helburuarekin. Egitasmo honetako eragile nagusiak herri elkarteak dira, horiek baitira hiriko haur eta gazteei eskainitako jarduera gehienak antolatzen dituztenak.

Horretaz gain, Irungo Udaleko Bozeramaile Batzordeak (PP izan ezik) Adierazpen Instituzionala kaleratu zuen ondorengo konpromisoekin:

- Guztion hizkuntza eskubideak bermatuko ditugu, eta Euskara udal administrazioko enplegatuen lan hizkuntza izateaz gain, hiritarrei begira zerbitzu hizkuntza bihurtzeko konpromisoa hartzen dugu.
- Espazio sozial euskaldunak bultzatu eta indartzeko konpromisoa hartzen dugu.
- Udalaren kontratazio publiko eta lehiaketa guztietan hizkuntza-irizpideak inplementatzeko konpromisoa hartzen dugu, bereziki erlazio eta elementu komunikatiboetan.
- Euskararen ezagutza handitzeko eta udalerrian unibertsalizatzeko konpromisoa hartzen dugu.
- Herriko euskararen aldeko puntu komuneko bilgune zabalak –euskalgintza, eragileak, sektore desberdinetako erakundeak, udala– sortzen eta gorpuzten laguntzeko konpromisoa hartzen dugu.

## Ba al zenekien...

### Etxeko lanak egin gabe...

Duela hilabete eskas, udal gobernuak PPekin hitzartua eraman zuen inbertsio plana eztabaidatu zen udalbatzan, Xabier Iridoy EAJ-PNV Udal Taldeko bozeramaileak ahozko zuzenketa bat egin zuen momentuan bertan, Ventas auzorako 60.000 euroko partida bat eskatuz. Bai alderdi popularreko bozeramaileak, baita alkate jaunak ere zuzenketa egiteko moduak deitoratu zituzten, horrela lan egitea ezinezkoa zela eta proposamena idatziz aurkezteko esanez.

Hilabete beranduago, EAJ-PNVren moduak hainbeste kritikatu zituztenak aurrekontuen Osoko Bilkurara etxeko lanak egin gabe aurkeztu ziren, zuzenketa gehigarriak onartzen hasi baiziren zein diru-partidetatik kendu zehaztu gabe. Jose Corchon zinegotzi abertzaleak aparteko gehikuntza horiek nola finantziatuko ziren galdetu zuenean ere ez ziren momentuan erantzuteko gai izan. Erantzuna geldialdi baten ostean iritsi zen, baina argi geratu zen ez gobernuak, ezta PPK ere ez zituztela etxeko lanak egin.